


# STM

**San Telmo Museoa**

Zuloaga plaza 1  
20003 Donostia – San Sebastián  
Telefonoa: 943 48 15 80  
santelmo@donostia.org  
[www.santelmomuseoa.com](http://www.santelmomuseoa.com)

San Telmo Museoa 

## ZATOK ZUGANA SAN TELMO MUSEOA EZAGUTZEKO IBILBIDEA

**Publiko Nerabe eta Helduentzat**



## SARRERA

San Telmo Gizarte Museo bat da, oso museo handia eta gai asko jorratzen dituena. Objektu bakoitzari buruzko informazioa oso gutxi eta oro har gai sakonak oso gaintetik azaltzen diren arren, bisitaldi bakar batean dena behar bezala ikusteko, gutxien-gutxienez hiru ordu beharko lirateke, eta ikus-entzunezko guztiek ordubete behar lukete, modulu elkarreragiletan bakoitzak eman nahi lukeen denbora aintzat hartu gabe ere. Jakina, banaka hori gehiegi bada, taldeka etorrira bisita ezin astunagoa litzateke. Eta helburuak kontrakoa izan behar du: bisita arina, atsegina, berriro etortzeko gonbitea luzatzen duena. Izan ere, museo gutxi dira bisita bakar batean agortzen direna, eta San Telmo ez da inondik inora horietako bat, aitzitik ere.

Honako honetan egiten dizuegun proposamena Museoa deskubritzeko gonbidapen bat da: salaz sala, aretoz areto, gai asko jorratuko dira; baina ez jorra litezkeen guztiak, bakoitzetik alderdi bat baino ez. Museoaren arkitektura bera (arkitekturak, hobeto esanda); duela ehun urte jasotzen hasitako bilduma nagusiak; gaur egungo ikuspegi berritik begiratutako objektu historikoak; pieza guztiz eder eta apartekin batera itxuraz xume baina historia eta istorio asko kontatzeko aukera ematen diguten gauza apalagoak; oso aspaldikoak eta gaur goizekoak (nork esan du “museoko pieza” berez traste zaharra denik?); alegia, gure iragana eta gure oraina ulertzeko gako batzuk eskainiko ditugu, betiere ondarearekiko sentiberatasuna areagotu nahian. Horixe baita, izan ere, Gizarte Museo baten egitekoa.

Hartara eskema erraza aplikatuko da, areto guztietan eta gai guztietan berbera, bisitaldiari koherentzia ematearren:

- azaldu beharreko gaiaren testuinguru historikoa;
- pieza bat, testuinguru horren adierazgarri, objektu bakar batek hizpide franko eman dezakeela erakustearren;
- beste pieza bat, berezko balioak dituena, ondarearekiko sentiberatasuna areagotzearren;
- museo baten zereginei buruzko azalpen osagarri bat.

Horrela, gidarik gabeko bisitaldi autonomia nahiago izanez gero, irakasleak edo arduradunak erraz samar aurkitu (hurrengo planoetan agertzen dira geldialdia egiteko espazioak) eta azaldu ahal izango ditu hemen proposatutako objektuak eta gaiak. Dena den, aukera honen alde egiten dutenei Museoa alde zuzenetik bisitatzea gomendatzen zaie.

**Jarduera osoa egiteko, ordu eta erdi kalkulatzen da.**



## Bisitaldi gidatuaren nondik norakoak:

### Bisitaren hasiera:

Ongietorria, Museoaren aurkezpena eta egin beharreko bisitaren nondik norakoak.

Eliza: Ikus-entzunezkoa (13 min.)

### Beheko solairuan:

Elizatik atera eta, eskuinera hartuta, bisitaldi gidatua beheko klaustroak lotzen dituen “Espiritualtasun Zeinuak” eta “Aztarnak Oroimenean” erakustaretoetan.

Beheko klaustrora berriro atera eta eskuinaldean berehala dagoen dorretik igo goiko solairura (behar izanez gero, igogailua ere badago).

### Goiko solairuan:

Dorretik sartu eta berehala ezkerreko atetik sartu “Euskal Artearen 100 urte” aretora. Hango bisitaldia eginda, erakustaretoaren beste atetik atera eta bertan, klaustroko bi aldeak lotzen dituen izkinan egin geldialdia. Klaustrotik segi eta “Tradizioak bizirik dirau” aretoetan sartu, eliza gaineko koruan. Klaustrora berriro aterata, “Industrializazioa, aldaketaren eragilea” aretora joan eta hango itzulia egin. Berriro klaustrora, azkenurreko geldialdia egitera.

### Bisitaldia bukatzeko:

Dorretik jaitsi eta beheko klaustroan bildu azken geldialdirako: gogoeta egiteko ariketa da gehienbat.

Bertan bukatuta, dorrean barrena atera daiteke, edo klaustrotik aldi bateko erakusketa batera joan, edo handik harrerara.






Hurrengo orrialdeetan, bisitaren lagungarri, gaiak komentatzeko proposatzen diren objektuak planoetan agertzen dira:

### BEHEKO SOLAIRUA:


San Telmo Museoa





**GOIKO SOLAIRUA:**

San Telmo Museoa





# HIL ETA BIZIKO KONTUAK

## “Espiritualtasun zeinuak” aldean

### TESTUINGURUA

Paganoa izan, kristaua izan –eta maiz ez dago bi aldeak garbi bereizterik–, erlijiotasuna izan dute euskaldunek ezaugarri... gainerako herriek bezalaxe, bide batez esanda. Pentsamolde laikoa XVIII. mendetik aurrera Mendebal Europan eta beraz Euskal Herrian zabaltzen hasi zen arte, gurean erlijiotasuna Eliza Katolikoak agindutakoaren arabera adierazten zen. Erlijiotasun herrikoiak, ordea, izan ditu bere ezaugarriak, seguruenik lehenagotik zetorrena eta Elizak inposatutakoa nahastearen ondoriozkoak; hala nola argizaiolak eta hilarriak.

### PIEZATIK...

Oso apainduak izan, soil-soilak izan, argizaiolen bilduma hau aparta da. Lehenik eta behin, Euskal Herrian beste inon aurkitzen ez direlako. Gainera, gaur egun haien erabilera ia guztiz desagertua delako, Museoak duela ehun bat urte bildutako piezek are balio handiagoa hartu dute. Baina batez ere aparteko piezak dira haien bidez sinesmen-mundu batera garamatzatelako. Eta, nolako sinesmenak, halako gizarteak. Gaur “apaindura” deitzen ditugun irudiek beharbada bazuten esanahirik, guk ez ezagutu arren. Jakin badakigu hil ondoren beste mundu bi bazeudela sinesten duen gizarte batenak direla: infernura beharrean zerura joateko argia behar zela sinesten zuten; horregatik pizten ziren elizan. Baina ez nornahik eta nonahi: orduko gizartearen oinarria ez zen gizabanakoa, etxea baizik (eraikina baino gehiago, orube bati loturiko familiaren zentzuan), eta etxe bakoitzak elizan bazuen bere jarlekua, behiala familiako hildakoak lurperatzekoak; hantxe pizten zituen etxeako andreak, haren betebeharra eta era berean eskubidea baitzen.





### ...PIEZARA

Herioak denok berdintzen omen gaitu; baina hilda egoteko moduetan ere badaude aldeak eta mailak. Hilarri batzuk, hala nola bide edo mendietan ezustean hildakoenak, indibidualak ziren arren, hilobiak familiarenak izaten ziren. Ipar Euskal Herriko edo Nafarroako hilerrietan oraindik orain ikusten dira hilarriak, eta haien ordezeko hilobietan ere askotan izen-deiturak baino, etxearen izena agertu ohi da.



Hilarri honen irudiak Eulate jauretxeko armari heraldikoa dakar, otso pare. Dena den, besterik ez balu ere, haren tamaina gailenak ederki asko erakusten du Eulate etxeok gainerakoak baino gehiago zirela azaltzeko asmoa, bai eta lortu ere!

### MUSEOA MINTZO

Museo batek ezin ditu dauzkan objektu guztiak batera erakutsi, espazio faltagatik eta publikoa berehala saturatuko litzatekeelako, bat-batean antzeko objektuen hainbeste ñabardura barneratu ezinik.

San Telmok salbuespen bakarra egin du: argizaiolen bilduma eta hilarriena bai erakusten dira osorik, duten balio bereziarengatik (hemendik kanpo gutxi aurkitzen baita, argizaiolen kasuan bereziki) eta haien bidez Museo baten egitekoa erakutsi nahi duelako.







# EUSKALDUNEN URREZKO (BURDINAZKO) AROA “Aztarnak Oroimenean” aretoan

## TESTUINGURUA

Urreak ospe handia badu ere, antonomasiatzko metala burdina da, ugaria delako eta batik bat denetarako balio duelako. Urrea, kobrea eta brontzea lehenagokoak izan arren, gizateriaren gaur egunerako bilakabidea azaltzen duen eragilea burdingintza izan da, eta burdingintzan armagintza.

## PIEZATIK...

Euskal Herrian kalitate handiko meategiak bazeuden. Eta egon ere, Euskal Herria Pirinioetako mendebaldean, Iberiar Penintsularen eta Mendebal Europaren artean zegoen. Baina burdingintzaren hedapen azkar eta esanguratsua gertatzeko hainbat faktore elkartu izana ulertu behar da, Behe Erdi Aroan, XIII. mendetik aurrera, eman zirenak. Batetik, testuinguru historiko eta geografikoa: aspaldian desagertutako inperio baten bazter batean egotetik, garatzen ari ziren hainbat potentzia mendebaldarren artean zegoen Euskal Herria.

Bestetik, hauspoak eta gabia mugiarazteko uraren indarraren aplikazioa, XIV. mendetik aurrera zabaldua, ez da euskal ezaugarria. Baina Euskal Herrian, Gipuzkoan eta Bizkaian batez ere, burdinazko meategiez gain, ur-saltoak egiteko aldapa handiko erreka asko eta urtsuak bazeuden, bai eta egur ikatza egiteko baso asko ere.





### ...PIEZARA

Mundu Klasikoa Mediterraneoan garatu zen, eta Erdi Aroko krisi luze eta sakonaren ondoren ere handik hasi zen ateratzen. Behe Erdi Aroan, ordea, arabiarrek Afrikan eta turkoak Ekialdean indartzen ari ziren, zetaren bidea kontrolpean hartuta; ardatz ekonomiko nagusia Atlantikorantz biratzen hasi zen. Iberiar Penintsulan Gaztelak aurrera egiten zuen hegorantz, artalde handien bazkalekuak irabaziz. Artilea Herbehereetako lantegietara eramateko bide motzena euskal portuak ziren. Gaztela eta Portugal “Indietara” lehenik iristeko irrikatan, batzuek Afrika inguratu eta bestetuek ezustean Amerika topatu. Eta euskal nabigatzaileak bertan ziren. Hartara, Euskal Herria, bazter batean egotetik, erdibidean egotera iragan zen. Geografiaren garrantzia...



Galeoiak Gaztelako armadaren ontzi gorenak ziren, benetako itsas gotorlekuak, balio handiko merkatal gaiak garraiatzeko baliatuak. Haietako asko eta asko Euskal Herrian egin ziren. Diseinuan eta funtzionaltasunean egindako hainbat hobekuntza ere euskal itsastarren esku iritsi ziren.

### MUSEOA MINTZO

Batzuetan, handiegiak direlako edo osotasunean desagertu direlako (horregatik esan ohi da “pieza” hitza museoetan, gutxitan aurkitzen delako objektu bat osorik edo funtzioa ulertzeko beharrezko objektuekin batera) jatorrizko objektuak baino ulergarriagoak eta didaktikoagoak dira berregintzak. Itsasontzien maketak adibiderik hoberenetako bat da, eskalan eta errespetu historikoz eginak egonez gero, jakina. Hain dira baliagarriak zentzu guztietan ezen erreproduzio hipotetiko bat izanagatik ere ondare-objektuaren mailan jartzen baitira.





# EUSKAL ARTEA ETA EUSKAL GIZARTEA “Euskal Artearen 100 Urte” aretoan

## TESTUINGURUA

XIX. mendearen bigarren erdialdea arte, ezin esan euskal artea badagoenik, korrante orokorretan (eta haien sorburuak hiri handietan zeuden: Erroma, Herbehereak, Paris, Sevilla...) lan egiten duten euskal artista batzuk baizik. Izan ere, mendeetan zehar Euskal Herrian, Eliza izan zen ia bezero bakarra, eta eskatzen zuen artea ez zen beste tokietan eskatzen zuenaz bestekoa. Artea eros zezakeen euskal burgesia bat sortu eta garatu ahala sortu zen euskal artea, hau da, euskal paisaiak, pertsonaiak eta motiboak irudikatzen zituena.

## PIEZATIK...

Interesgarria da ikustea, betiere estiloen eboluzioari uko egin gabe, euskal burgesia industrialak ez zuela eskatu ohi bere bizimodua islatzea artean, are gutxiagotan langileriaren bizimodu latza, eta bai, ordea, idealizatutako mundu bat: baserritarrak eta arrantzaleak, baina gutxitan lanean gogor edo pobrezian, askotan jai giroan edo tximiniarik eta kerik gabeko paisaia bare eta ederretan.



Emakumezko baserritarrak ura dakar, suila buruan daramala. Nork esango, koadroari begira, lan gogor eta aspergarria zela (probatu al duzue hainbat kilo buru gainean kilometrotan eramaten?). Nork esango zeinen deserosoa den urik gabeko etxe batean bizitzea!





### ...PIEZARA

Andres Nagel donostiarraren “Jon buruz behera” gaur egun “artearen askatasuna” deritzagunaren adibide galanta da:

Ume bat buruz behera esku bakar batez grabitatearen legeari desafioka, ezegonkortasun-sentsazioa areagotzen duen kartoizko kaxa baten gainean.

Artistaren indibidualismoa, ez eskola baten baitakoa, nagusitzen da.

Halaber, Euskal Herriko egilearen izenburuak euskal izen bat dakar; baina ez dario “euskaltasunik”, ezta beharrik ere, edonon egon daitekeen obra delako.

Egileak aurreko euskal artista baten eragina aitortzen du (Chillida); baina hainbat iturritan edandakoa da, ez du artelana identitate sozial, ekonomiko, ideologiko, nazional edo kulturalik proposatzeko erabiltzen.

Egintza aldetik hainbat material eta teknika nahasten du: bilatzen duen emaitza lortzearen, dena baita zilegi.



San Telmo Museoa

### MUSEOA MINTZO

Beste ataletan bezala, artelanek, berezko balio estetikoaz eta “artistikoaz” gain, badute bestelako baliorik: sorrarazi dituen gizartearen lekuko izatearena. Era berean, atal historiko eta etnografikoetan ez dira gutxi balio estetiko eta artistikoa duten objektuak. Gizarte Museoa denez, San Telmok ohiko sailkapenak gainditu eta objektuen balio orokorra erakusten du, testuinguru oso bat eskainiz.

Bestetik, Museoaren zeregina ondarearen balioa agerraraztea denez gero, ez da eraikinera mugatzen. Adibidez, Nagelen beste obra bat ere erakusten da... bertan, Unibertsitateetako biribilgunean. Eta Oteizaren, Chillidaren, Basterretxearen eta abarren lanak, [www.santelmomuseoa.org](http://www.santelmomuseoa.org) web gunean “Donostiako eskulturen atlasa” atalera joz gero.





# EUSKAL HERRITIK EUSKAL HIRIRANTZ “Jendartean bizitzea” arloan

## TESTUINGURUA

Frantziako Iraultzaz geroztik gure gaur egungo bizimoduaren oinarri politikoak (berdintasuna legearen aurrean sufragio bidezko parlamentarismoa, alderdiak, hiru botereen banaketa...), sozialak (burgesiaren gorakada eta langileriaren sorrera, estamentutan banatutako gizartearen orde), ekonomikoak (industrializazioa) eta kulturalak (hirigintza, alfabetizazioa, arte berriak...) ezartzen hasi ziren, behintzat XIX. mendean Ameriketara eta Europan. Fenomeno luze, korapilatsu, joan-etorri askokoa izan zen, eta bortitza oso, gehienetan aldaketak edo atzerakadak gerren bidez gauzatu ziren eta. Espainian, Antzinako Erregimenaren eta Liberalismoaren arteko borroka arazo dinastikoaren (karlismoa) pean adierazi zen, euskal lurraldeetan foruen aldeko eta kontrako eztabaidetan areagotua.


## PIEZATIK...

Geltokiko erlojua: horra objektu xumea, ezaguna, beste munduko deus ematen ez duena... non eta denboraren beraren kontzeptua adierazteko ez bada. Zeren eta gure gaur egungo denboratasun milimetrikoa (segundoka ere neurtzen baitugu), XIX. mendean zabaltzen hasi baitzen, industriaren eta garraioen iraultzarekin batera.



Bizi-erritmoaren aldaketa; alegia, azkartzea... horra hor iraultza haien guztien adierazpide egokia, bizimodu tradizionalaren eta modernoaren arteko desberdintasunik inportanteenetako bat.





### ...PIEZARA

Athletic-eko kamiseta zuri-gorriak, kolorge samar egonagatik, bisitari askoren arreta erakartzen du, bai eta galdera bat planteatzen ere: nahiz eta objektua gizarte berri baten ezaugarri galanta izan (masa-kirolena, hain zuzen, orduan fenomeno berria eta gaur geure-geurea), ez ote du, era berean, fetitxismo kutsurik? Teknika edo egintza aldetik, ez da berebiziko gauza; baina emozioei eragiten dienez gero...



### MUSEOA MINTZO

Historia; hau da, gizateriaren bilakabidea denboran zehar, hainbat erataraz azal daiteke. "Klasikoa" alderdi beliko-instituzionalen eboluzioari erreparatzea izan da, eta hein handi batean hala egiten jarraitzen da. Museo eraberrituan, ordea, honi uko egin gabe ere (nola egin, bada?), historia-liburuetan gutxitan baina eguneroko bizimodua (ordukoa eta oraingoa) ulertzeko ezinbesteko arloak ere jorratu ditu. Ba al dugu gure bizimodua hiria gabe ulertzerik? Ba al dugu gure bizimodua ulertzerik "denbora libre" (aisia, turismoa, kirola...) kontzepturik gabe? Hura guztia, eta "luxuaren demokratizazioa" (denbora bera edukitzea bilakatu zen luxu, lanaldiaz bestekoa zen heinean), orduan hasi zen, eta hain zuzen euskal kostaldea izan zen adibiderik gailenetako bat. Gizarte Museo batek ezin horri guztiari uko egin.







# LAN ETA JAN, JAN ETA LAN

## “Tradizioak bizirik dirau” arloan

### TESTUINGURUA

Tradizionala deitu ohi den mundua; hau da, jakintzak eta balioak batez ere ahoz transmititzen zituena, ez zen geldi geratu, XIX. eta XX. mendeetako iraultza eta aldaketan alboan (ez zen inoiz geldi egon). Baina haren interesak, erritmoak eta ezaugarriak desberdinak ziren. Baserriak baserri segitu zuen: familia bakarrak ustiatutako etxe-lurralde multzoa, nekazaritzaz eta abeltzaintzaz diharduena, oinordeko bakar batek heredatu eta mantendua; baina gari eta sagardo gutxiago egin (garia eta ardoa trenez inportatuta merkeago izaki) eta handitzen ari zen kaletarren merkaturako esnea eta barazki gehiago ekoiztera dedikatu zen, gero eta espezializatuago. Eta mekanizazioa ere ezarri zen, lanak errazte aldera. Gaur egun ere, askoz baserri gutxiago geratzen da lanean, baina segitzen dutenek familia bakarreko ustiakuntza segitzen dute.

### PIEZATIK...

Baliabideen optimizazioa: inguru latz batean, non dena lanaren lanez lortzen den, eta hala ere maiz eskas, denboraren poderioz baliabide hurbilenei sekulako etekina ateratzen zaie. Hona hemen, bere xumean, adibide aparta, kaikua. Zurezko ontzia, pieza bakarrekoa (ez dago josi beharrik), nekez hausten dena (lan gogorretan oso ezaugarri inportantea), eta guztiz ergonomikoa eta funtzio anitzekoa: formak ahalbidetzen du ardiak jeztea; heldulekuak ahalbidetzen du horizontalean garraiatzea eta, pixka bat mugituta, esnea erraz isurtzea; zurezkoa izaki, harri goriak botata, esnea bertan irakin daiteke, mamia egiteko. Formaz gaur egun oso eder eta orijinala bazaigu ere, apaindurarik ez, lan-tresna bat delako.





### ...PIEZARA

Jantzi gutxi erabiltzen zen garaian, arropa gehiena “etxeko arropa” (maindireak eta halakoak) zenean, armairuak baino gehiago kutxak erabiltzen ziren baserrietan. Egia esan, janaria ere kutxetan gordetzen zen (garia, babarrunak, haragia gatzetan...); baina arroparakoek ezaugarri berezia zuten: bertan eramaten zuen andregaiak berak urtetan irun, ehundu eta brodatutako arropa, zenbat eta gehiago eta dotoreago, hainbat aberatsago zela erakusten zuena. Kutxa, bada, funtzionaltasun hutseko altzari bat baino gehiago zenez gero, apaindurak ere garrantzi sinboliko handia hartzen zuen. Maiz hilarri eta argizaioletan aurkitzen diren apaindurak ikusten dira, bai eta bariatuagoak eta “konposizioak” ere, apaintzeko azalera handiagoa izanda.



### MUSEOA MINTZO

Museoak, instituzio biziak direnez, garaian garaiko eta tokian tokiko gizarteen isla izan ohi dira. 1902an Udal Museoa sortu eta 1932an San Telmon bertakotu arte, industrializazioarengatik ziztu bizian aldatzen ari zen mundu tradizionalaren objektu esanguratsuenak biltzeari ekin zitzaion. Horregatik, artelan eta objektu historikoez gain (eta historikotzat gehienetan armak eta halakoak hartzen ziren), balio etnografikoko bildumak egin ziren. Objektu industrialak, aldiz, ez ziren jasotzen, “ondare” ez zirelakoan; hots, “herri baten berezitasuna” islatzen ez zutelakoan. Orduan ere mundu guztiak ez zuen berdin pentsatzen, eta askok baserri munduko ezein ondareri “traste zahar” irizten zion.

Jakina, hurrengo aretoan ikusiko den bezala, kontzepzio biak gaindituak daude aspaldi. Eta kontua da San Telmok, zorionez, industriak ekoizitako objektu asko bildu duela, betiere balio handiko bilduma etnografikoa gordeta.







# LAN-MODU BERRIAK, BIZIMODU BERRIAK

## “Industria, aldaketaren eragilea” aretoan

### TESTUINGURUA

Euskal Herrian industrializazioa XIX. mendean hasi zen, eta XX. mendearen bigarren erdialdera arte bi lurraldetara mugatu zen, handik kanpo gutxi izan baitzen.

Bizkaian siderurgia izan zen eragile handia: meatzaritzatik labe garaietara. Harekin lotua, ontziolena, Ingalaterrara meua esportatu eta handik harrikatza inportatzen zuen garraioaren ondorioz. Bilbo inguruko industrializazio eskerga emanatik, gainerako eskualdeek baserri giroan jarraitu zuten hein handi batean.

Gipuzkoan, industriaren ezaugarria izan zen, lantegi txikiagoetan gauzatzeaz gain, aniztasun geografikoa (bailara guztietan) eta produktiboa: papera Tolosaldean, zementua kostaldean, burdingintza Goierriin, armagintza Eibarren, sarrailagintza Arrasaten, kotoia Bergaran, portzelana Oarso-Bidasoan...

### PIEZATIK...

Legazpiko “Patricio Echeverria” lantegitik ekarri den limak egiteko makina honek birritan erakusten du euskal industrializazioaren garrantzia:

- Batetik, burdingintzak jarraitu zuelako eragile ekonomiko nagusia izaten, eta hain zuzen burdinazko tresneria, denetarikoa.
- Bestetik, Euskal Herrian industrializazioaren oinarri den makina-erreminta izan delako, hain zuzen, produktu nagusietako bat.





Lana somara egiten zen; alegia, egindako piezen kopuruaren arabera kobratzen zen, orduka baino gehiago. Horrek, praktikan, egin beharreko gutxieneko kopuruak gero eta handiagoak eskatzea zekarren.

### ...PIEZARA

Industrializazioak ez zuen eskulangintzaren desagerpena ekarri, eboluzio bat baizik. Izan ere, artisautzaren eta industriaren arteko mugak ez ziren garbi: prozesu osoa egiten zuen artisaua baino, eskuz atal zehatzetan espezializatutako langileak zeuden industriaren oinarrian, espartingintzan, adibidez. Gerora bai, makinaz egindako produktuek eskuz egindakoak ordeztu ahala, bai desagertu dela lanbide asko. Eibarko armagintza da eboluzioaren adibide galanta, mendeetako tradizioa tailer txikietan gauzatu eta handik bizikleta eta josteko makinak ekoiztera pasa baitziren.

Zenbait lanbide, berriz, ezin makinaz egin. Areago, eskuz egindako produktu zenbait artisau-lantzat ez baina artelantzat har daitezke: “arte aplikatuak” delakoak dira horiek. Euskal Herrian adibiderik hoberena Eibarko damaskinatua da, burdina eta urrea, iaiotasuna, trebezia handia eta gustu delikatua batzen dituena.



### MUSEOA MINTZO

Museoak objektua ez ezik, hari loturiko informazio oro jaso behar du, testuinguruan ulertuko bada: dokumentazioa, argazkiak, objektua egiteko behar adina tresna... Horregatik, batzuetan tailer osoen berregintzak erakusten dira, pieza bat edo beste jarrita ez baitira ulertzen.

Limak egiteko makinaren kasuan, oso inportantea da jakitea emakumezkoek egiten zutela lan hura, langileria gizonezkoen mundua zelako inpresio oraindik orokor samarra gezurtatzearen. Hori esan ezean, “emakumezkoen ikusezintasun historikoa” berretsiko litzateke.

Damaskinatuaren kasuan, anekdota bitxia lirudike azalduko ez balitz jatorrian luxuzko armen apaindura zegoela; baina harago iritsi zela. Adibidez, Zuloaga pintore eibartarraren sen artistikoa ulertuko bada, damaskinatu-egileen leinukoa zela jakin behar da.





# GU ERE, MUSEOKO PIEZAK GARA “Belaunaldi zaratatsua” arloan

## TESTUINGURUA

Gerra gogor eta gerraoste gogorragoaren ondoren, diktadura latz batean, kalapita ekonomikoa ekarritako “autarkia” delakotik “desarrollismora” pasa zen: gerora kutsadura eta bestelako problemak ekarriko zituen baina berehalakoan diru-sarrerak eman zituen industrializazio azkarra gerra aurreko eskualde industrializatuetan, Katalunian eta Euskal Herrian, eta etorkinen bertakotze masiboa eta eraikuntza ere sustatu zituena. Aldaketa ekonomiko hutsik ez dagoenez, harekin batera kezka sozial eta kultural berriak sortu ziren.

## PIEZATIK...

Industrializazioaren erakustaretoan ikusitako bizikletak eta motorrak, garraioaren iraultza baino, familiaren eta gizartearen iraultza iragartzen zuten. Haren sinbologia, “turismo-autoa”, Italian FIAT 500 eta Frantzian Renault 4, eta lehenago Alemanian Volkswagen (hitzez hitz, herri-autoa) “kakalardoak”. Espainian, ordea, gerraoste gogor baten ondoren eta askatasun politiko eta sindikalik gabe, aurreko belaunaldikoen aldean SEAT 600 izan zen herritar langile xumeen bidaiatzeko ahalmena areagotzea mugimendu-askatasunaren eta oro har “aurrerapenaren” sinbolotzat hartutakoa: hiriek eskaintzen zituzten aukerez baliatzea, bizimodu erosoagoa, lan-egonkortasuna eta beraz maileguak eskatzeko gaitasuna (etxeak ez ezik, autoak eta etxetresnak epeka erosten ziren), oporraldiak, jabe izatearen sentsazioa...





### ...PIEZARA

Euskal Herrian, askatasun-egarrria kultur bide berrietan eta era berean euskal erroetan gauzatu zen hein handi batean. Euskara, arte plastiko abstraktua eta musika izan ziren tradizioan oinarritu arren adierazpide berritzaile nagusiak. Mikel Laboa izan zen musikarien artean gailena, ondorengo askok maisutzat hartu duten arren (edo beharbada horrexegatik) hasi zenean ikaragarri kritikatu, tradizioa berri ez baina desitxuratzen zuelakoan. Urteen poderioz kritikek zentzua galdu eta haren lanaren balioa handitu egin da, hil ondoren batik bat.

Alargunak utzi dio gitarra Museo berrituari hainbat urtez, objektu partikular bat baino gehiago, gaur egungo euskal kultura eta gizartea ulertzeko garrantzi handiko mugimendu baten isla den heinean jendartean aurkeztu beharreko ondarea delakoan.



### MUSEOA MINTZO

Zenbat urte behar ditu objektu batek "museoko pieza izateko"? Maiz, zenbat eta zaharrago orduan eta balio handiago pentsatu ohi da. Baina balio museala ez da ekuazio matematikoen arabera neurtzen. Gauza zaharrek balio izaten dute beren garaiko lekuko gutxi geratu ohi direlako, ez berez urte asko dutelako. Oraingo edo iragan hurbileneko ondarea jasotzen ez badu museo batek, etorkizunean beharbada ez du gorde ahal izango gure garaiko esanguratsuena, geratu diren objektu bakanak baizik.





# MUSEOA ERE, MUSEOKO PIEZA BAT DA Beheko klaustroan, dorrearen ondoan

## TESTUINGURUA

Nola hasten da museo bat sortzeko prozesua? Oro har, eraikin batean gordetako bilduma-sorta erakusgai jartzea deitu ohi dugu museo. Baina lehenik eta behin, museo bat ondarea kudeatzeko erakunde bat da, ondare hori hurrengo belaunaldiei iraunarazteko asmoan oinarritua; hartara, hainbat objektutan gauzatzen da, eta askotan edukitzailea bera ere ondare-gai izaten da. San Telmo Euskal Herriko lehen museo da, udal museo gisa 1902an sortu eta hain zuzen komentu zaharra baloratzeko eta ondare bihurtzeko prozesu baten ondoren 1932an San Telmora lekualdatuta.

## PIEZATIK...

XVI. mendeko klaustro hau Monumentu Historiko izendatu zuten. Holako gutxi dago Gipuzkoan; egia esan, estiloaren (Errenazimendukoa) eta dotoreziaren aldetik, Oñatiko Unibertsitatekoa (gaur artxiboa) baizik ez. Ederra zentzu guztietan, bai eta fundatzaileen boterearen adierazgarri galanta ere: XVI. mendeko Donostia estuan, halako klaustro zabal bat egiteko adina espazioa eskuratzea sekulako luxua zen, are gehiago fraideek eta noizbehinka Donostiara etorriko ziren fundatzaileek (errege-idazkariak izaki, gutxitan) beste inork ez baitzuen gozatzen haren edertasunaz.

Zorionez, monumentu izendatuta, publiko orori zabaltzeaz gain, behar bezala iraunarazteko ardura beren gain hartzen dute instituzioek. Horregatik da guztion ondare.







### ...PIEZARA

XXI. mendeko gizarteak ez du errealitatea erlijioaren ikuspegitik neurtzen eta antolatzen, eta San Telmoko eraikin berria museo –hau da, oraingo eta etorkizuneko publikoarentzako kultur ekipamendu bat – izateko sortu da. Kontzeptua bera ere berri samarra da. Jakina, eraikin berriak balio eta interes berriak islatzen ditu: kokatua dagoen inguru natural eta urbanoan integratuta (landareak, bolumenak...), ingurumenarekiko errespetuzkoa (aluminioa, fatxadako materiala, ehuneko ehunean da birziklagarria), monumentu historikoa babestu (mendiko hezetasunetik aldentuta) eta irisgarriago egiten duena...



San Telmo Museoa

### MUSEOA MINTZO

Eraikin historikoak museo bihurtzeak dohain handiak dituen arren, arazo teknikoak ere ekarri ohi ditu: espazioak bestelako funtzioak betetzeko pentsatuak zeudenez, egokitzea ez da erraza, batez ere erakustaretoek baldintza zorrotzak behar dituztelako argikuntza, hezetasun, tenperatura, irisgarritasun aldetik. Eta, era berean, eraikin historikoetan ezin da edozein esku-hartzerik baimendu: hormak zulatzea, paretak botatzea, jatorrizko osagaiak estaltzea (azulejuak, pinturak...) edo berriak gehitzea. Bolumenak errespetatu behar dira, gauza berriak egitea baino garestiago izan arren jatorrizko materialak zaharberritu, eta abar.

Bestetik, maiz gerta liteke, zaharra izan, berria izan, eraikina izatea museoaren “piezarik onena” eta beraz protagonismoa kentzea bildumei. Baina, San Telmoren kasuan behintzat, aitortu beharra dago zaharraren eta berriaren, edukitzailearen eta edukiaren arteko orekak sekulako emaitza lortu duela.





# ZATOZ ZUGANA

SAN TELMO MUSEOA EZAGUTZEKO IBILBIDEA

donostia**kultura**.com



Donostiako Udala  
Ayuntamiento de San Sebastián



DONOSTIA 2016  
SAN SEBASTIAN

Erakunde laguntzaileak:

San Telmo Museoa



Gipuzkoako Foru Aldundia  
Diputacion Foral de Gipuzkoa

Patrono pribatuak:



**EL DIARIO VASCO**



berria<sup>info</sup>

**GARA**

naiz:

